BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1399

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 30ekoa, Ikastetxeen zuzendariarena; honen bidez, CPEIPS San José de Floreaga HLBHIP ikastetxeari diru-laguntza ematen zaio 2.0 Eskola proiektuan jasotako ekintzak gauzatzeko.

Ikastetxeen zuzendariak 2011ko azaroaren 29an emandako Ebazpena 2011ko abenduaren 23an argitaratu zen EHAAn (242. zenbakia). Bertan, argitara eman zen itunpeko ikastetxe pribatuek zer diru-laguntza jasoko duten 2.0 Eskola proiektuan jasotako ekintzak gauzatzeko.

Aipaturiko ebazpen horretan ez da agertzen CPEIPS San José de Floreaga HLBHIP ikastetxea. Baina eskaera sasoiz egin zuen, hala egiaztatzen baitu Saileko sarrera erregistro-liburuak.

Ikusi dira, halaber, aurkeztutako eskabidea, deialdiaren bosgarren artikuluan adierazitako irizpideak eta artikulu bera horren arabera sortutako Batzordeak egindako ebazpen-proposamena. Horregatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– CPEIPS San José de Floreaga HLBHIP ikastetxeari 5.604 euroko diru-laguntza ematea 2.0 Eskola proiektuan jasotako ekintzak gauzatzeko.

Bigarrena.– Diru-laguntza 2011ko uztailaren 27ko Aginduaren zortzigarren artikuluan ezarritako irizpideen arabera jasoko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea, eta beraren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Saileko hezkuntza sailburuordeari, Ebazpen hau argitaratu eta hilabeteren barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 30a.

Ikastetxeen zuzendaria,
MARCELINO HERNÁNDEZ GARDUÑO.